2020SECG0003
3.Bilera:ezohikoa 2020/07/23

# TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILERA-AKTA

ACTA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

| | | |
|---|---|---|
| BILERA: Ezohikoa<br>BILERA ZK.: 3<br>EGUNA: 2020/07/23<br>ORDUA: 17:00<br>TOKIA: Udaleko bilera-aretoa.<br><br>**BERTARATUAK:**<br><br>Gilen Garcia Boyra (ALKATEA)<br>Aritz Larrañaga (EH BILDU)<br>Antxoka Elorza (EH BILDU)<br>Pedro Bengoetxea (DA)<br>Iñigo Cambronero (EAJ-PNV)<br>Eneritz Gomez (EAJ-PNV)<br><br>Jorge González Endemaño (idazkaria)<br><br>**BERTARATU EZ DIRENAK:**<br><br>Itziar Irizar (EH BILDU)<br>Ane Egidazu (DA)<br><br>**ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:** | | JUNTA: Extraordinaria<br>Nº : 3<br>DÍA: 23/07/2020<br>HORA: 17:00<br>LUGAR: Salón de reuniones del Ayuntamiento.<br><br>**ASISTENTES:**<br><br>Gilen Garcia Boyra (ALCALDE)<br>Aritz Larrañaga (EH BILDU)<br>Antxoka Elorza (EH BILDU)<br>Pedro Bengoetxea (DA)<br>Iñigo Cambronero (EAJ-PNV)<br>Eneritz Gomez (EAJ-PNV)<br><br>Jorge González Endemaño (secretario)<br><br>**NO ASISTENTES:**<br><br>Itziar Irizar (EH BILDU)<br>Ane Egidazu (DA)<br><br>**TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:** |
| **1. 2019ko 12,13 eta 14 zenbakidun fakturen zerrendak eta 2020ko 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7 zenbakidun fakturen zerrendak onartzea, hala badagokio.**<br><br>Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du 2019ko 12, 13 eta 14 zenbakidun fakturen | | **1. Aprobar, si procede, la relación de facturas nº12, 13 y 14 del 2019 y nº1, 2, 3, 4, 5, 6 y 7 del 2020.**<br><br>La Junta de Gobierno Local ha acordado, por unanimidad, la aprobación de la relación de |

| | | |
|---|---|---|
| zerrendak eta 2020ko 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7 zenbakidun fakturen zerrendak onartzea. | | facturas nº12, 13 y 14 del 2019 y nº1, 2, 3, 4, 5, 6 y 7 del 2020. |
| **2. Covid-19ak eragindako egoeraren jarraipenari buruz informatzea.**<br><br>Alkateak aipatzen du Itziar Irizar Eibarren Osasun Sailburuarekin dagoen bilerara joan dela eta emango digula han hitz egindakoaren berri.<br><br>Alkateak dio, hasieran agertu ziren kasuen gainean egon zela, Arantza Aranbururi galdetu eta erantzunak eman zizkiola, baina harrez geroztik ez diola besterik esan. Orduan pentsatu duena da, zerbait larria dagoenean edo Udalak zerbait egiteko duenean jakinaraziko digutela Osakidetzatik.<br><br>(Debako azken asteko datuak azaltzen ditu alkateak.)<br><br>Sentsazioa ona da, Debarron partetik hondartzaren inguruan emandako erantzunarengatik. Portua itxi da eta ordundik bertan zeuden arazoak apaldu dira, kontzentrazioak… baina ez desagertu.<br><br>Covidari dagozkion protokoloen inguruan hondartzakoa oraingoz ondo funtzionatzen ari da.<br>Abuztuan ere espero da ildo | | **2. Informar sobre el seguimiento de la situación provocada por el Covid-19.**<br><br>El alcalde comenta que Itziar Irizar va a asistir a la reunión que se va a celebrar en Eibar, con la consejera de salud y que nos informará sobre lo hablado.<br><br>El alcalde dice, que al principio siguió de cerca los casos que aparecieron, estuvo en contacto con Arantza Aranburu, sin que haya recibido más información por parte de ella. Entonces, lo que plantea es, que cuando haya algo urgente o cuando el ayuntamiento tenga que hacer algo, nos lo comunicarán desde Osakidetza.<br><br>(El alcalde comenta los datos de la última semana de Deba).<br><br>Existe satisfacción por la respuesta de los debarras en el entorno playa. El puerto se ha cerrado y los problemas existentes se han calmado: concentraciones… pero no han desaparecido.<br><br>Sobre los protocolos del Covid, de momento el de la playa está funcionando bien.<br><br>Se espera que agosto se |

| | | |
|---|---|---|
| beretik mantentzea.<br><br>Antxoka: Hurrengo bi asteburuak izango dira konfliktiboenak.<br><br>Alkateak galdera edo ekarpenik dauden galdetzen du.<br><br>Iñigo: Eguneko Zentroko neurriei buruz informatzea.<br><br>Gilen: Agindua zegoen baina zalantza zegoen ez zelako argitaratu. Udalak errealitatea zein zen ikusita hezkuntza zaintza sarearekin harremanetan jarri zen. Aritzek Iñakirekin hitz egin zuen Mª Eugenia oporretan zegoelako eta astelehenean antolatu zen dena. Larunbatean izan genuela aginduaren berri eta astelehenerarte ezin zen ezer egin. Dena antolatua edukita ere, astelehena izango da dena martxan jartzeko eguna eta denak ondo funtzionatu du. Erabaki probisional bat da eta pendiente gaude bueltatu behar denean atzera bueltatzeko.<br><br><br>Iñigo: Iritxi diren gauza gehiago?<br>Gilen: Gazte lokalak. Lehendabiziko fokoa agertu zenean espreski lokala ixteko dekretua egin genuen eta beste lokalak ixtea Eusko Jaurlaritzaren agindua izan da. Guk soilik Eusko Jaurlaritzak emandako aginduari oihartzuna eman diogu. | | mantenga en la misma línea.<br><br>Antxoka: Los siguientes dos fines de semana serán los más conflictivos.<br><br>El alcalde pregunta si hay alguna pregunta o aportación.<br><br>Iñigo: Informar sobre las medidas del centro del día.<br><br>Gilen: Había una orden pero había dudas, porque no se había publicado. El ayuntamiento, viendo cual era la realidad, se puso en contacto con la red de ayuda “zaintza sarea”. Aritz habló con Iñaki, porque Mª Eugenia estaba de vacaciones, y el lunes se organizó todo. El sábado tuvimos conocimiento de la orden y hasta el lunes no se podía hacer nada. Aún teniendo todo organizado, sería el lunes el día para ponerlo todo en marcha, y todo ha funcionado bien.<br>Es una decisión provisional y estamos pendiente para volver atrás, cuando haya que volver.<br><br><br>Iñigo: ¿Más cosas que se hayan cerrado?<br>Gilen: Los locales de jóvenes. Cuando apareció el primer foco hicimos un decreto expresamente para cerrar el local; y el cierre de los otros locales, ha sido por orden del Gobierno Vasco. Nosotros sólo hemos dado eco a la orden del Gobierno Vasco. |

DEBAKO UDALA

| | | |
|---|---|---|
| Antxoka: Itziarko udalekuak itxi dira.<br><br>Gilen: Itziarko udalekuak bertan behera gelditu dira. Hori haiek kudeatu zuten eta larunbatean bertan jakinarazi zuten. | | Antxoka: Se han cerrado las colonias de verano de Itziar.<br><br>Gilen: Las colonias de verano de Itziar se han suspendido. Eso lo gestionaron ellos y lo notificaron el mismo sábado. |
| **3. Ondargain tabernari buruz informatzea.**<br><br>Antxoka: Zerbitzu batzordean landu da gaia. Hainbat aldiz konbokatu eta deskonbokatu zen zerbitzutako batzordea. Deitu genuen batzorde bat eta gero ez zen egin, informaziorik ez zegoelako. Orduan Miren eta Isidorreri aipatu nien, berriz gertatu ez zedin, hurrengoan zerbait badago deitu eta bilduko garela informatzeko.<br><br>Abenduan plenotik pasa zen gaia: 200m$^2$tan Ondargaineko plazoleta jartzea eta Costaseri egin zitzaion eskaria. Konfinamendua amaitu zenean Costasek errekeritutakoa egin behar zela esan zigun. | | **3. Informar sobre el bar Ondargain.**<br><br>Antxoka: El tema se ha tratado en la comisión de servicios. La comisión de servicios se ha convocado y desconvocado varias veces. Convocamos una comisión y luego no se hizo, porque no había información. Entonces les comenté a Miren e Isidor, para que no ocurriera otra vez, que si hubiera algo les llamaría y nos reuniríamos para informar.<br><br>En diciembre pasó el tema por pleno: poner la plazoleta a 200m$^2$ y la solicitud que se hizo a Costas.<br>Cuando finalizó el confinamiento, Costas nos dijo que había que hacer lo requerido. |
| **4. Hilerri berriari buruz informatzea.**<br><br>Batetik, ordenantza lantzen ari gara.<br>Bestetik, obra amaieraren harrera dago. Baina teknikariek | | **4. Informar sobre el nuevo cementerio.**<br><br>Por un lado, estamos trabajando la ordenanza.<br>Por otro lado, está la recepción de la obra. Pero los técnicos |

| | | |
|---|---|---|
| nahiago dute polikiago joan, akats batzuk egon daitezkeelako eta obra hartzen badugu zalantzan dauden akats horiek gure gain hartuko genituzkeelako. | | prefieren ir más despacio, porque puede haber algunos errores y si recepcionamos la obra, asumiríamos esos errores. |
| Obra oso txukun geratu da nahiz eta hezetasun arazo bat egon. | | La obra ha quedado muy bien, a pesar de que hay un problema de humedades. |
| Pedro: Hobe da ondo kontrolatzea sinatu baino lehenago. | | Pedro: Es mejor controlar bien antes de firmar. |
| Gilen: Nahiago da obra amaiera lasaitasunez hartzea. Patriciak esan zuen nahiago zuela ondo aztertu, espedientean begiratzeko hainbat gauza zeudelako. | | Gilen: Es mejor aceptar el fin de obra con tranquilidad. Patricia dijo que prefería examinarlo bien, porque había varias cosas que mirar en el expediente. |
| Ez dugu hirigintza batzorderik deitu baina nahi duenak Patriziarekin obra ikustera joan daiteke. | | No hemos convocado la comisión de urbanismo, pero el que quiera puede ir con Patricia a ver la obra. |
| Antxoka: Zerbitzutako batzordea izan genuenean geratu ginen ordenantzaren zirriborroa iraila hasieran pasatuko zaiela alderdiei aztertzeko eta beraien ekarpenak egiteko. | | Antxoka: Cuando hicimos la comisión de servicios decidimos que pasaríamos a los distintos grupos el borrador de la ordenanza en septiembre, para que lo examinen y para que hagan sus aportaciones. |
| Gilen: Abokatuaren gaia. Iñaki Beristainek ez dauka ordezkapenik, baina Mutriku Natur Taldeak ordezkaritza dauka. Pedro eta Lucianok ere. Udal langileak ikerketatik kanpo geratu ziren eta ikusi genuen udalak ez zeukala ordezkaritzarik eta interesgarria izan litekeela prozesuan parte | | Gilen: El tema del abogado. Iñaki Beristain no tiene representación, pero Mutriku Natur taldea sí. Pedro y Luciano también. Los trabajadores del ayuntamiento quedaron fuera de la investigación, y vimos que el ayuntamiento no tenía representación, y que sería interesante que lo tuviera para |

| | | |
|---|---|---|
| hartzeko ordezkatuak izatea. Prozedura gisa puntu hau osoko bilkuran sartu behar zen. Batez ere, erantzukizun zibila izaten badugu, argi geratzeko udalak zein ardura izan dezakeen hor ikertzen ari den hortan. Jakiteko aurrerantzean nola jokatu. | | tomar parte en el proceso. Este punto había que incluirlo en el pleno como parte del proceso. Sobre todo, si tenemos responsabilidad civil, para que quede claro qué responsabilidad puede tener el ayuntamiento en lo que se está investigando. Para saber cómo actuar de aquí en adelante. |
| **5. Enplegu Planari buruz informatzea.**<br><br>Urtero, Eusko Jaurlaritzak udaberrian Enplegu Plana martxan jartzen du. Aurten Covida dela eta, eten egin zen eta lehenago izango zela pentsatzen genuen, baina pasa den astean gizarte teknikariak eskualde mailan bildu ziren, herri bakoitzari zenbat tokatzen zitzaion zehazteko. Hasiera batean, 23.000€ inguru tokatzen zitzaion Debari baina azkenean 31.700 euro inguru tokatu zaio. Horren inguruan pare bat proiektu egin dituzte hirigintza-zerbitzu sailetik. Aurten langile/ errefortzu horiek izan ordurako, urria izango da.<br>Lehen udararako aprobetxatzen genuen brigadarako langile horiek izatea.<br><br>Pedro: Zenbat pertsona hartzen dituzue diru honekin?<br><br>Hasiera batean brigada ez zegoen egoera onean eta horretarako erabiltzea pentsatzen zen. Baina gero | | **5. Informar sobre el Plan de Empleo.**<br><br>Cada año, en primavera, el Gobierno Vasco pone en marcha el Plan de Empleo. Con el Covid se interrumpió, y pensábamos que sería antes, pero la semana pasada se reunieron los técnicos/as sociales de la comarca, para fijar cuánto correspondía a cada pueblo. En un principio, a Deba le correspondían 23.000€, pero al final le han tocado unos 31.700€. Sobre ese tema han realizado un par de proyectos desde los departamentos de urbanismo y servicios. Este año para cuando tengamos esos trabajadores/refuerzos será octubre.<br>Antes aprovechábamos el tener esos trabajadores en la brigada para verano-.<br><br>Pedro: ¿Cuántas personas cogéis con ese dinero?<br><br>En un principio, la brigada no estaba en muy buena situación, y pensábamos emplearlos allí. Pero luego, con los trabajadores |

| | | |
|---|---|---|
| etorri berri diren langileekin giro ona dago eta produktibitatea hobetu egiten da giro onean lan eginez. Horretarako erabiltzea pentsatzen zen baina Patriciak txosten bat egin zuen hirigintzako egoerari buruz, hau da, pilatutako espedienteak… eta berak eskatzen zigun espedienteen tramitean esperientzia zuen norbait. Ez da administrari baten profila baizik eta berari lanak egin diezazkiokeen norbait, zentratuko dena pilatutako hori guztia garbitzen. Itziarko poligonoan lizentzia emateko zain dauden enpresak daude… orduan gai batzuk argitzeko daude. | | que se han incorporado, hay buen ambiente y la productividad aumenta si se trabaja en buen ambiente. Se pensaba emplearlos en eso, pero Patricia hizo un informe sobre la situación de urbanismo, es decir, los expedientes acumulados… y ella nos pedía alguien que tuviera experiencia en el trámite de expedientes. No es el perfil de un administrativo, sino alguien que pueda hacer sus trabajos, quien se centre en limpiar todo lo acumulado. En el polígono de Itziar hay empresas esperando licencias… hay algunos temas que aclarar. |
| Patriciaren txostena jarraitzea erabaki genuen. Falta dena da zehaztea zenbat denborarako izango den. | | Decidimos seguir el informe de Patricia. Lo que falta es concretar para cuanto tiempo será. |
| Pedro: Pertsona horiek ezaugarri konkretu batzuk izan behar ditu, ez? langabezian egon behar dira, emakumezkoak… Agian figura hori bilatzea zaila da. | | Pedro: Esas personas tienen que tener unas características concretas, no? Tienen que estar en paro, mujeres…Quizás sea difícil encontrar esa figura. |
| Gilen: Gu saiatu gara aparejadorearen iritzia mahai gainean genuela ikusita, horrela kudeatzen, baina ezin bada, erantzun bat eman beharko diogu, agian murritzagoa, edo denbora gutxiagoan… behintzat arnasa har dezan, ze gelditu gabe dabil, baina sentsazioa da ezer egingo ez balu bezala. Eta nik zerbait egin dezaket beraien | | Gilen: Nosotros nos hemos esforzado, teniendo sobre la mesa la opinión de la aparejadora, de gestionarlo de esa manera, pero si no se puede, tendremos que dar una respuesta, quizás más breve o por menos tiempo… por lo menos para que respire, porque anda sin parar, pero la sensación es de no hacer nada. |

| | | |
|---|---|---|
| karga pixkat arintzeko. Zuekin ere kontrastatuko dugu erabakitzen duguna.<br><br>Jorge: Patriciak bere txostenean esaten zuen 1.200 espediente daudela irekita. Arazoa da, herritarrak ondo ez zerbitzatzea, udala dirua galtzen ari dela ere bada. | | Y yo puedo hacer algo para aligerar su carga. Contrastaremos también con vosotros, lo que decidamos.<br><br>Jorge: Patricia decía en su informe que hay 1.200 expedientes abiertos. El problema no es sólo que no se le ofrece un buen servicio a la ciudadanía, sino también, que el ayuntamiento está perdiendo dinero. |
| Besterik gabe 17:38etan bukatu zen bilera. Eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota geratzeko, nik, idazkari naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egiten dut, lehendakariak ontzat emanda. | | Sin más temas que tratar terminó la reunión a las 17:38. Para que conste lo tratado y acordado redacto y firmo éste acta con el visto bueno del presidente. |

Gilen Garcia Boyra
Alkatea / Alcatea

Jorge González Endemaño
Idazkaria / Secretario